

ERABAKIA, UPV/EHUko IKASLE KONTSEILUAREN BATZORDE IRAUNKORRARENA, 2025eko URRIARENREN 10ko EZOHIKO BILKURAN, 2025eko URRIAREN 15ean ETENALDI AKADEMIKOAREN DEIALDIA ONARTZEN DUENA.

ACUERDO DE LA COMISIÓN PERMANENTE DEL CONSEJO DE ESTUDIANTES DE LA UPV/EHU, EN SU SESIÓN EXTRAORDINARIA DEL 10 OCTUBRE DE 2025, POR EL QUE SE APRUEBA LA CONVOCATORIA DE PARO ACADÉMICO EL DÍA 15 DE OCTUBRE DE 2025

UPV/EHUko Ikasleen Araudiko 2.7 artikuluan xedatutakoaren arabera, UPV/EHUko ikasleek eskubidea dute beren eskubideak defendatzeko, eta aldarrikapen eta protesta akademikoak egiteko.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 2.7 del Reglamento del Estudiantado de la UPV/EHU, las y los estudiantes de la UPV/EHU tienen derecho a la defensa de sus derechos y al ejercicio de sus reivindicaciones y protestas.

27.1 artikulua ezartzen du etenaldi akademikorako deialdiaren erabakia hartzeko baldintza dela Ikasleen Kontseiluko kideen bi herenek botoa ematea.

El artículo 27.1 establece el requisito para la adopción del acuerdo de convocatoria de paro académico de contar con el voto favorable de 2/3 de las y los miembros del Consejo de Estudiantes.

2.7 artikuluan xedatutakoa ikasleari aplikatu ahal izateko prozedura 28. artikuluan zehazten da. Artikulu horrek ezartzen duenez, etenaldi akademikorako deialdia egin ahal izango da, eskubideak defendatzeko eta aldarrikapen eta protesta akademikoak egiteko bada. Etenaldia onartu ondoren, ezarritako gehiengo kualifikatua betez, etenaldiaren deialdia idatziz jakinarazi beharko zaio organo eskudunari. Organo horrek, gehienez ere, 3 egun balioduneko epea izango du, eskaera Erregistro Orokorrean sartzen denetik zenbatzen hasita, eskaera egin duen kontseiluarekin biltzeko, baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

El procedimiento para que lo dispuesto en el artículo 2.7 sea de aplicación al estudiantado viene detallado en el artículo 28. Este artículo establece que el paro académico se podrá convocar siempre y cuando se realice en defensa de los derechos y en el ejercicio de sus reivindicaciones y protestas académicas. Una vez aprobado el paro, cumpliendo con la mayoría cualificada estipulada, se establece que la convocatoria de paro deberá ser comunicada por escrito al órgano correspondiente, quien en un máximo de 3 días hábiles desde la entrada de la solicitud en el Registro General convocará una reunión con el Consejo Solicitante para verificar el cumplimiento de los requisitos.

Horregatik, UPV/EHUko Ikasle
Kontseiluaren Batzorde
Iraunkorrak, gehiengo
kualifikatuaz, honako hau

Por todo ello, la Comisión
Permanente del Consejo de
Estudiantes de la UPV/EHU, por
mayoría cualificada,

ERABAKI DU

ACUERDA

LEHENENGOA.- Euskal Herriko
Unibertsitate osoan 2025eko
urriaren 15ean etenaldi
akademikoa egiteko deialdia
onartzea.

PRIMERO. - Aprobar la Convocatoria
de Paro Académico en toda la
Universidad del País Vasco / Euskal
Herriko Unibertsitatea el día 15 de
octubre de 2025.

BIGARRENA.- Xedatutakoa
Ikasleen eta Konpromiso
Sozialerako errektoreordeari
helaraztea, eta Ikasleen
Erregelamenduaren 28.4 artikuluan
ezarritako bilera eskatzea,
baldintzak betetzen direla
egiaztatzeko.

SEGUNDO. - Trasladar lo dispuesto al
Sr. Vicerrector de Estudiantes y
Compromiso Social y solicitarle la
reunión estipulada en el artículo 28.4
del Reglamento del Estudiantado
para la verificación del cumplimiento
de los requisitos.

Leioan, sinadura elektronikoaren
datan

En Leioa, a fecha de la firma
electrónica

Iñigo Ugedo Vicario

UPV/EHUko Ikasle Kontseiluko Lehendakaria
Presidente del Consejo de Estudiantes de la UPV/EHU

ERANSKINA

Palestinako genozidioa munduaren begien aurrean gertatzen ari da, zigorgabetasun osoz. Nazio Batuen Ikerketarako Nazioarteko Batzorde Independentek 2025eko irailaren 16an argitaratutako "Israelek Gazan duen jokabidearen lege-azterketa, Genozidio Krimena Prebenitzeko eta Zigortzeko Konbentzioak dionaren arabera" izeneko txostenean, Israel aipatzen da genozidioaren krimenaren erantzuletzat, "Gazako palestinarrak suntsitzeko asmoa" duela frogatuz.

Palestinako Osasun Ministerioak 2025eko urrian argitaratutako datuen arabera, 67.000 pertsona baino gehiago hil zituzten, eta 169.590 inguru zauritu. Zifra ofizial horiek, errealitatean askoz handiagoak izan daitezkeenak, aurrekaririk gabeko tragedia bat erretratatzan dute, eta Israelgo erregimenaren basakeria agerian uzten dute.

Indarkeria ez da eraso eta hilketetara mugatzen. Francesca Albanese Nazio Batuen Palestinako Lurraldeetarako Errelatore Bereziak 2025eko uztailaren 3an aurkeztutako txostenak salatzen zuenez, "Israelek palestinar herriaren aurka ezarritako errepresioa korporazio eta enpresa erabat kontzienteek antolatu dute, giza eskubideen urraketekiko eta

ANEXO

El genocidio en Palestina está ocurriendo frente a los ojos del mundo, con total impunidad. En el informe titulado "Análisis legal de la conducta de Israel en Gaza de conformidad con la Convención para la Prevención y Sanción del Crimen de Genocidio", publicado el pasado 16 de septiembre de 2025 por la Comisión Internacional Independiente de Investigación de las Naciones Unidas, se señala a Israel como responsable del crimen del genocidio, al demostrar su "intención de destruir a los palestinos de Gaza".

Según los datos publicados por el Ministerio de Sanidad palestino en octubre de 2025, el número de personas asesinadas ascendía a más de 67.000, mientras que la cifra de personas heridas alcanzaba aproximadamente las 169.590. Estas cifras oficiales, que en la realidad podrían ser mucho mayores, retratan una tragedia sin precedentes y evidencian la brutalidad del régimen israelí.

La violencia no se limita a los ataques y asesinatos. El informe presentado el 3 de julio de 2025 por Francesca Albanese, Relatora Especial de las Naciones Unidas para los Territorios Palestinos, denunciaba que "la represión israelí contra el pueblo palestino ha sido orquestada por corporaciones y empresas plenamente conscientes, aunque indiferentes a las violaciones de

nazioarteko krimenekiko axolarik izan ez dutenak". Halaber, adierazi zuen armagintza, teknologia, finantza, energia eta eraikuntza sektoreetatik datozen enpresa horiek "okupazio, apartheid eta genozidio sistemarekin oso lotuta daudela".

Israelen basakeria urriaren 3an ere agerian geratu zen, armadak Global Sumud ontzidia nazioarteko uretan atzeman zuenean. 45 herrialdeko 462 aktibistek osatzen zuten ontzidia, eta itsas blokeoa haustea eta Gazara laguntza humanitarioa eramatea zuen helburu. Parte-hartzaileei, nazioarteko uretan egonda, askatasuna kendu zieten eta Israelgo espetxeetara bidali zituzten. Prozesuan indarkeria fisikoa, tratu ankerrak, dron bidezko erasoak eta zibilen aurkako urkanoien erabilera jasan zituzten.

Joan den **urriaren 2an**, ikasle-mobilizazio jendetsuek ikasleok giza eskubideekin eta Palestinarekiko elkartasunarekin dugun konpromisoa erakutsi zuten. Hala ere, oraindik asko dago egiteko. Horregatik, EHUko ikasle-erakundeok geldialdi akademiko bat deitu dugu **2025eko urriaren 15erako**, **palestinar herriaren aurkako genozidioa salatzeko eta Israelgo Estatuari eta sarraskia lagundu eta finantzatzeko** duten instituzio, enpresa eta erakunde guztiei boikota egiteko.

derechos humanos y crímenes internacionales". Asimismo, señaló que estas empresas, procedentes de sectores como el armamentístico, tecnológico, financiero, energético y de la construcción, "están profundamente entrelazadas con el sistema de ocupación, apartheid y genocidio".

La brutalidad israelí se evidenció también el pasado 3 octubre, cuando el ejército interceptó en aguas internacionales la flotilla Global Sumud, integrada por 462 activistas de 45 países y cuyo objetivo era romper el bloqueo marítimo y llevar ayuda humanitaria a Gaza. Los y las participantes fueron privadas de libertad en aguas internacionales y transferidas a prisiones israelís, sufriendo en el proceso violencia física, tratos inhumanos, ataques con drones y el uso de cañones de agua contra civiles.

El pasado **2 de octubre**, las multitudinarias movilizaciones estudiantiles mostraron el compromiso del estudiantado con los derechos humanos y la solidaridad con Palestina. Sin embargo, todavía queda mucho por hacer. Por ello, desde las organizaciones estudiantiles de la EHU convocamos un paro académico para el próximo día **15 de octubre de 2025**, con el propósito de **denunciar el genocidio contra el pueblo palestino y llamar al boicot al Estado de Israel**, así como a todas las instituciones, empresas y organizaciones que colaboran y financian la masacre.